



Gaztetxoek protagonismo berezia izaten dute Karabeleko Herri Krossean. Helduetan, Lopetegik marka jarri zuen iaz.

Karabel auzoko IV Herri Krossa igandean

■ Izen ematea auzo elkarteko lokalean gaurtik aurrera, 17:00etatik 20:00ak arte, edo egun berean; debalde da.

BELKARA auzo elkarteak IV Herri Krossa antolatu du aurten ere eta igande honetan jokatu da. Proba gazte eta helduentzat izaten da eta urtetik urtera jende gehiago apuntatzen da. Aurten ere, korrikalariak 4 kategoriatan banatu dira: 2 kategoriatan gazteenek 600 metro egin

beharko dituzte auzoari buelta ematen dion ibilbidean. Infantilek ibilbide berari 2 buelta eman beharko dizkiote, eta 1.200 metro egin beharko dituzte. Helduek, berriz, 2.000 metro pasako errekorridoa izaten dute eta 4 buelta emango dizkiote, 8.300 metroak osatzeko. Karabelgo krossean

izena emateko epea zabalik dago. Aurretik apuntatu nahi duenak auzo elkarteko lokalera jo behar du (Aingura 1, Zubipe ondoan) 17:00etatik 20:00etara, baino egunetan bertan ere apuntatu liteke. Internetez nahi duenak: www.herrikrossa.com helbidean. Inskripzioa debalde da.

Sariei dagokionez, kategoriatan bakoitzeko hiru aurrenekoek izango dute saria. Antolatzaileek adierazi dutenez, aldagelak Zubipen egongo dira, CD Hernaniko instalazioetan. Krosseko laguntzaile dira CD Hernani, Udala eta Diputazioa. Patrozinatzaile nagusiak Limpiezas Elurra eta Euskaltel. □

MAILAK ETA IBILBIDEA		
Jaiotako urtea	Kategoria	Distantzia
1994-1993	A	600 metro
1992-1991	B	600 metro
1990-1989	C	1.200 metro
1988 eta aurrekoak	D	8.300 metro

*A eta B kategoriek buelta bat eman beharko diote ibilbide txikiari. C kategorioak txikiari 2 buelta eta helduek errekorrido handiari 4 buelta.

UDAL AURREKONTUA

Inbertsioak erabakitzeko bilera gaur

■ 19:30etan Udaletxean.

2003 urteko inbertsioak erabakitzeko prozesua martxan dago eta gaur arratsaldean egingo da herritarrekin azkeneko bilera. Aurreko astean, herritarrek beren eskariak aurkeztu zituzten eta Udala Gobernuak ere bere proposamena azaldu zuen. Biak kontuan hartuta, Udala Gobernuak proposamen osoa moldatu du eta gaurko bileran ia erabat definituko dira 2003ko inbertsioak. □

HERNANI INSTITUTUA

Hitzaldia gaur Kalitatea eta Hezkuntzaz

■ Kontxi Mendarok hitz egingo du eta 18:30etan da Biterin.

HERNANI Institutuak gurasoentzako hitzaldi zikloa antolatu du hezkuntzak kalitatean zenbateko garrantzia duen jabetzeko. Aurreko hitzaldia Kontxi Mendarok Unibertsitateko irakasleak eta gai horietan espezialista denak emango du, Baloreen garapena eta Hezkuntza kalitatearen inguruan. Hitzaldia, gaur Biterin, 18:30etan, (ez 18:00etan). □

PAROA OSTEGUNEAN

Mobilizazio deialdia gaur 20:00etan

■ Bihar ere mobilizazioak egingo dira 12:00etan eta 20:00etan.

EUSKAL Herriak erantzun ekimenak bi orduko lan uzteak deitu ditu biharko, egoera politikoa salatu eta eskubideen defentsan. Deialdi hori dela-eta, gaur Hernanin mobilizazioa konbokatuta dago 20:00etan Gudarien plazan. Bihar, berriz, 2 orduko paroa egingo dira goizean eta arratsaldean. 12:00etan eta 20:00etan, manifestazioak. □

EPAIKETA PARISEN

Angel Pikabearentzat 10 urteko kartzela zigorra eskatu dute

PARISEKO Justizia Jauregian 11 lagun epaitzen ari dira azken egunetan. Horien artean Angel Pikabea hernaniarra dago, ETAKoa izateaz akusatuta. Asteleheneko sesioan 10 urteko kartzela zigorra eskatu zioten Pikabea eta beste lau laguni. Gainerakoei 3 eta 8 urte bitarteko zigorrak eskatu zizkieten. Hamaika lagun horietatik Angel Pikabea eta beste zortzi kartzelan daude. Gainerako biak aldegin daude. □

TELEBISTAK - BIDEOAK - BIDEOKAMARAK - ETXE TRESNAK

ANEXO

Gabonetan eskaintza bereziak:

TV C SONY frantsesekin -TXT-: 300 euro
VIDEO SONY frantsesekin (150 euro)
MIELE aspiragailua 1500w (150 euro)
FAGOR plancha -baporea- (21 euro)

Izpizua kalea 21 - Tel. 943 55 03 81 - 20120 HERNANI

laket

Jantzi eta osagarrietan aukera zabala Laketen.
Eguberri jai zoriontsuak opa dizkizuegu.

laket

Kardaberaz, 17 • Tel.: 943 330 679
20120 HERNANI

IKERKETA BEKA

"Emakumeek Hernaniko historiari egindako ekarpena"

Proiektua 2003ko otsaila eta azaroa bitartean landuko da.

Saria: 6.000 euro.
Proiektuak aurkezteko epea:
2002ko abenduaren 20a

LOGOTIPO LEHIAKETA

"Berdintasun Kontseiluaren Logoa"

Saria: 600 euro - Aurkezteko epea: 2003-01-10

Oinarriak eta informazioa:
Ongintza Patronatuko Berdintasun Saila
Karobieta 63 - Hernani - Tel.: 943 55 78 54

Karabel auzoan, Lagar-Balondo txapeldun Tute txapelketan, eta Pacheco-Garcia Musean

■ Asteburuan jokatu ziren 34garren txapelketak ■ Etxekoandre sariaren irabazleak: Jose Mari Miranda, Pedro Abad, Jose Antonio Zuazo eta Antonio Jimenez.

KARABEL auzoan asteburuan jokatu dira Mus eta Tute txapelketak, Belkara auzo elkarteak antolatuta. Aurten 34. edizioa jokatu da eta irabazleak honako pareja hauek izan dira: Tute txapelketan: Avelino Lagar eta Francisco Balondo txapeldun; bigarren, Jesus Lopez eta Agustin Pablo; hirugarren, berriz, Julio eta Fernando. Mus txapelketan, honela gelditu ziren gauzak: Laureano Pacheco eta Evaristo Garcia txapeldun; bigarren, Joxian Revuelta eta Moises; hirugarren, Elias eta Antonio Barras. Denera, 18 pareja atera ziren bi txapelketetan.

Urtero bezala, Etxekoandre Sariak ere banatu ziren. Aurtengo irabazleak dira: Jose Mari Miranda, Pedro Abad,



Karabelen, sarituek premio ederrak eraman zituzten. (Arg: Biyok)

Jose Antonio Zuazo eta Antonio Jimenez.

Santo Tomasetan txistorra
Belkara auzo elkarteak Santo Tomasetan urtero txistorra

jartzen du auzotarrentzat. Aurten ere festa antolatu du eta arratsaldeko 17:30ak aldera pintxoak eta sagardoa izango dira auzo elkateko lokalean. □

Patxi Zabaleta, Genma Zabaleta eta 'Bikila', Biterin

HIKA taldeak hiru mahai inguru antolatu ditu aste honetan, euskal gatazkaren inguruan. Astelehenean jende asko bildu zen Irazusta (AB) eta

Rubio (Batzarre) iparraldekoa eta naparra entzutera, eta Otegi (SA) eta Egibarren (EAJ) mahai inguruak ere ikusmin izugarria piztu zuen.

Gaur hiru hizlari izango dira: Patxi Zabaleta (Aralar), Genma Zabaleta (PSE-EE) eta Jose Iriarte *Bikila* (Zutik). Gaur, 19:30etan, Biterin. □

JASOTA BEZALA

EPAIA BETE DADIN:

Antzera amaitzen da Madrilgo Auzitegi Gorenetik jaso berri dugun idatzia. Hitz gogorak dira, baina, horraino iristeko bidea ere gogorra izan da. Sei urteko epai bidea, eta aurretik beste hainbeste Udalari irtenbide egokia eta zuzena eskatzen. Azkenean, Madrilgo Epaitegi Gorenak Euskal Herriko Auzitegi Gorenak 2000 urtean emandako epaia berretsi egin du, eta behin betikoa bihurtu. Epaia, Olazagirre S.A. lantokiari Osiñaga Bailaran kokatzeko Udalak eman zion baimena baliogabetzen du, eta lantokia bertatik kentzea agintzen du. Epaia betearazteak, korapilotsua izan daitekeen bide bat irekitzen du, baina orain arte egindakoa bezain neke-tsua ez dela izango sinetsi nahi dut. Arazo honi behin betiko irtenbidea emateko Borondatea Udalarekin eta Olazagirre S.A.rekin hitz egite-

ko eta guztiontzat onuragarria eta zuzena izango den irtenbidea adosteko. Horretarako ideiak, proposamenak eta indarrak ez zaizkigula faltako uste dut. Baina auzi honetan bakarrik ez gaude, eta beste bi aldeei gauza bera eskatuko nieke: auziari adostutako irtenbide egokia eta zuzena aurkitzeko borondatea. Lan hau datorren urterako izango da.

Jarraian sentimenduei lekua utziko diet. Une honetan Rekonoz eta enparuek asko gogoratzen naiz eta beraientzat kaka zaharra. Bestelakoak dira nire sentimenduak auzi honetan hainbeste lagundu digutenentzat. Lehendabizi, Hernaniko Auzo Elkarte guztiegi eskerrak eman nahi dizkizuet. Erakutsi duzuen Osiñaga auzoarekiko elkartasuna hunkigarria da. Baita abokatua izan genuen Mikel Mazkianan lagunari ere, eskerrak asko. Auzi honetan gurekin izan

zaretzen hernaniar lagun guztiegi, eskerrik asko. Herri Batasunari eman zizun laguntzagatik, eskerrik asko.

Auzokideaz ere zerbait aipatu nahi dut. Gazte nahiz zahar, emakumezko nahiz gizonezko, guztiok elkarrekin bidegabekeriari aurre egiten ibili zineten. Auzoarekiko maitasuna, borrokarako borondatea eta kementa, eta elkarrekin lan egiteko gaitasuna erakutsi zenuten. Gainera irabaziko zenuten ala ez jakin gabe. Horrelako auzo txikian hainbat lagun handi aurkitzea ez da batere normala. Eta horregatik guztiagatik, hainbeste lanaren ondoren arrazoia ematen digun papera hutsarekin ezin konforma gaitzkeela uste dut. Zerbait gehiago lortzea merezi dugu. Gainera horrela izango da hurrengo hilabeteetan ere, orain arte bezala, lan txukuna egiten jarraitzen badugu.

Josu Arrieta



ELUTXETA

Sagardotegia Erretegia

Oztaran Ballara 20130 URNIETA

Abenduak 21 larunbata
Barrikotea
20,00etatik aurrera.

Mañukorta,
Larrañaga eta
Epelde 'Porrua'
bertsolariekin.

Izen emateko deitu:

Tel. 943 55 69 81

AKADEMIA LATINO BERRIA

HABANA SWIN

Saltsa, txa txa txa,
batxata, merengea...
KUBA eta KARIBEko
erritmoak

IKASTAROAK

URTARRILETIK aurrera
Umeentzat eta helduentzat
Kubako irakaslea: DAYAMI
Telf.: 943 55 69 13 - 616 26 38 71
(Deitu, 20:30etatik 22:00 arte)
HERNANIN (Larramendi kalean)



Pintxo festako irabazleak, joan den ostiralean.

Pintxo festa AEK-n

OSTIRALEAN pintxo lehiaketa egin zuten AEK euskaltegian. Guztira 5 sari izan ziren. Pintxorik onenaren saria: Cristina Quintanillak eraman zuen, *Kronika* lanarekin; bigarren saria: Iñaki Armenarizek, *Euskal Txapapotea*

lanarekin; hirugarren saria: Angel Lopezek, *Kursaal* lanarekin. Dekorazio onenarena Aitor Diezek, *Baserria* gaian; eta ideia onenarena Rosa Garciak, *Kapritxoa* lanarekin. Denera 15 pintxo izan ziren. □

HITZ BITAN

✓ PINTURA ERAKUSKETA

Kepa Pikabearen margo-lanak Goizuetan. Kepa Pikabea preso hernaniarraren pinturak ikusgai daude Goizuetako Udaletxeko Ganbara aretoan. Erakusketa abenduaren 14an jarri zuten eta abenduaren 22ra arte egongo da Goizuetan.

✓ BERRIAK ELKARTEA

Hernaniko tabernariak bilera dute, bihar. Hernaniko tabernariak bilera deitu dute biharko. Hiru gai izango dituzte hitz egiteko: 1) Txotx denboraldian ordutegiak luzatzea; 2) 2003ko ordutegiak zertan diren; eta 3) Beste gai batzuk. Bilera bihar da, 16:30etan, Zumitza jatetxean.

Txorimalo lehiaketa ez da egingo. Berriak elkarrekin antolatutako Txorimalo lehiaketa suspenditu egin da. Hasieran larunbatean zen egitekoa, hilak 21, baina, jenderik apuntatu ez denez, ez egitea erabaki da. □

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

► Taxiak: 943 550093
► Udaltzaingoa: 943 333288
► DYA: 943 464622
► Autobusak: 943 556662
► Anbulatorioa: 943 006666
► Jokalari anonimoak: 943 331103


☎ FARMAZIAK

► Egunez: Etxebeste
Elkano 2
☎ 943 552087
► Gaez: Ansa
Andoain. Ondarreta
☎ 943 591302

ADARRAGA

Konfitegia
Pasteldegia

Urbietan Etorbidea 7
☎ 943 55 09 10



USURBILEN

**TAKOLO PIRRIK
ETA PORROTX**
"Beti zuekin... katxiporreta!!"

Lan berriaren aurkezpen emanaldia

OIARDO Kiroldegian
Abenduak 22, igandea
Arratsaldeko 4'30etan eta 6'30etan

SARRERAK: LETE LIBURUDENDAN

Antolatzailea: ARGIAren Adiskideak